

// Eneko Bidegain

baionako trinketea egin ditu argazkiak. 1945ean trinket horretan egiten ziren partidak eta apustuak gogora ekarri ditu. Trinketa ez da batere aldatu geroztik. Funtsean, Enrike IV.a erregearen garaian ere (XVI. mendean) ba omen zegoen trinket hori. Teilatupeko zurak historiaren lekukodira. Trinketaren ondo-ondotan dauka *Ager* bere aldizkariaren egoitza, garai batez EAJk Baionan zeukana.

Euskal Herriko egoera politikoa pilota partida batekin konparatuko bazenu...

Pilota partida batean, aktore guztiek pilotan jakin behar dute. Politikan, denek ez dakite politika egiten. Konparazioa egitea zaila da... Zer diozu egoera blokeatu horretaz? Zein da zure analisia?

Hegoaldean, lorpen izugarriak badituzte. Autonomia estatutua zer-bait da! Zergak-eta bildu ahal izatea ez da gutxi. Orain, euskaldunek, Ibarretxek barne, autonomia estatututik haratago joan nahi dute. Baina autonomia estatututik urruntzen diren ber, Espainiako Konstituzioaren koadrotik ateratzen dira. Eta hori pareta bat daugagu. Ez da deus egitekorik. Kongresua dago parean. Ikusi dugu Ibarretxeren proiektua nola baztertu zuten. Aitzinatu nahi badugu, Hegoaldeko erakunde gorenek gatazka eta haustura sortu behar dute. Ibarretxek erran behar zuen: «Horrela bada, hala ere eginen dugu». Zer gertatuko zen? Ba al dute indarririk aski erresistentzia egiteko gero etorriko liratekeen armada eta polizia?

Iparraldean gauza bera da. Frantziako Konstituzioa daukagu. Beraz, Euskal Herria bateratzea aipatzen dugunean, bi paretari eraso behar diegu. Hegoaldean ezin badute beren indar politikiko, ekonomiko eta kultural guztiarekin, guk nola egingen dugu? Batzuek diote aurreratzen garela. Egia da euskal mugimenduari eskereuskal nortasunak iraun duela eta garatu dela. Baina botere politikoa hartzea besterik da. Ergelek baizik ez dute erratan lortuko dugula.

EAJ Euskal Herria Bai-n ez sartzea kritikatu duzu. Huts egin zuen?

«Hori ezin dugu egin, Hegoaldean hori badelako» erraten dutenek nardatzen naute. EAJk erraten duenean Euskal Herria Bai-k akordioa hausten duela Barajasko atentatua izan delako, zer dugu guk horrekin ikustekorik? Alderdi politikoa interes daitezke, baina populazioa ontsa kexu da! EH Bai bazterten ahalegindu dira, erranez koalizio horretan bortizkeria- ren kontra ez dagoen alderdi bat badagoela. Hemengo jendeari bost axola zaio. Horren froga da EH Bai-k emaitza ona egin duela. Geldi



Pilotari ospetsua izan zen 50eko hamarkadan. Kantu anitz grabatu zituen, plazaz plaza. Ximun Haran (Arrangoitze, 1928) Enbata-ren sortzaileetarikoa bat zen. 1990ean, EAJren Ipar Euskal Herriko adarra sortu zuen.

gaitzen «Hegoaldea», «Hegoaldea» erratetik... Hegoaldeak ez digu gauza handirik ekarriko. 40 urte hauetan ezagutu ditut. Badakit: ezkorra naiz. Baina gaitzeko esperientzia daukat.

Zure esperientzia EAJn izan zen.

Oraindik jarraitzen dut EAJko familia politikoa. Ez naiz ABko edo Batasuneko bazkide, eta ez naiz inoiz izan. Horrek ez du erran nahi ez dudarik harreman bikainik haiekin. Denen beharra daukagu hemen. Izugarri penatua naiz ikusirik EAJk nola kudeatu dituen hauteskunde horiek. Guztiz desagertu da, sostengatu dituen hautagaiek ez dute eskertu ere egin. EAJ infiltratua da. UDFk infiltratu du. Infiltrazio hori Phi-

lippe Dulucek egiten du. Non dira zinezko abertzaleak? Ramuntxo Camblong, Iñaki Ibarloza eta horiek?

Zergatik diozu UDFk Dulucen bidez infiltratu duela EAJ?

Batetik, Duluc ez delako abertzalea. Inon ez dugu ikusi. Bigarrenik, oso laguna da Chabaud-Nadinekin [UDF-Modemeko hautagaia izan da]. Guztiz bat egiten du UDFekin. Pena da gizon horrek gaina har dezan EAJn. Haien bloga ikustean, Dulucek zer botatzen duen ikusi behar da. EAJ zinezko enpresa bat da. Zer enpresa da eszualdeetan gertatzen dena kontrolatzen ez duen zuzendaritza bat ere egin. EAJ infiltratua da. UDFk daukatela ikuspegi politikoki izpi-

rik, ez badira Batasuna indarke-riaren alde dagoela erratea bezalako argelkeriak. Baina haiek, han, ez dute kontrolatzen. Ez dutelako nahi edo ezin dutelako... Ez dakit, haien arazoa da. Baina diru anitz ematen dute hemen. Enpresaburu banintz, nonbait egitura bat banu eta dirua inbertitua banu, begiratu nuke zein diren emaitzak.

Zergatik urrundu zinen EAJtik?

EAJ 1990ean sortu zen Ipar Euskal Herrian. Nik sortu nuen. Nik eraman nituen negozioak Euzkadi Buru Batzarrekin. Haiek ez zuten nahi hemen alderdia sortzea. Elkarte soil bat sor genezan nahi zuten. Nik EAJren zinezko adar bat nahi nuen, eta ez elkarte bat. Haiek guztiz aurka zeuden. Ipa-

rraldeko EAJ ofizialki sortzeko ekitaldia egin genuenean, Xabier Arzalluz ez zen etorri. Barakaldo ondoko batzokiko komunaren inaugurazioan izan zen. Inor ez zen etorri. Horrek frogatzen du ez zutela nahi, edo ez zitziela axola.

Zergatik ez zuten nahi?

Alderdi politikoetan dauden arduradunak gehiegi kezkatuak dira Hegoaldeko beren arazo politikoez, eta ez zaizkio inoiz interesatu Iparraldeari, Iparraldeak ez dielako ezer ere ekarriko. Bai, noiz-behinka etorriko dira argazki batzuk ateratzera, ahoberoarena egitera. EBBko bilertetara joaten nintzenean, inork ez ninduen agurtzen, inork ez zidan galdetzen ea arazorik bagenuen ala ez. Egun batez, Ipar Buru Batzarreko kideekin batera txosten bat egin nuen, eta han aurkeztu: «Etsituak gara. Jakin nahi dugu: edo politikoki ezin gaituzue lagundu, edo ekonomikoki. Edo bestela, bost axola zai-



GAIZKA IROZ

zue. Baina erran iezaguzue». Ar-danzak erran zuen: «Pasa gaitezen beste gai batera». Inork ez zuen galdera bakar bat ere egin. Zerk bultzatu zintuen EAJren Iparaldeko adar bat sortzera baldintza haietan? Eusko Jaurlaritza sortu zenean, Enbata astekariak irainez beteak ziren artikulatuak idazten zituen. «EAJkoak traidoreak ziren...». Nik Enbata utzia nuen, ETA haren jabe egin baitzen. Eusko Jaurlaritza-zen eta EAJren defentsa eginen zuen aldizkari bat sortu behar zela pentsatu nuen. Baina Hegoaldean ez gintuzten lagundu. Hala ere, jarraitu genuen. Eta gero pentsatu genuen alderdia sor genezakeela. Geroago, Gorka Agirre, Muñoa eta Arzalluzen ingurukoak azpizokoa egin zituzten, ni kanpo ezartzeko. Zergatik? Asteleheneroko bile-retain ez bainintzen makurtzen Arzalluzen aurrean. EAJn sartu baino lehen, Enbatako

kide zinen. Geroztik, bakoitzak bere bidea segitu du. Zerk batzen zintuzten, eta zerk bereizi zintuzten? 1960an, Enbata sortu nuen, Mixel Labeguerie eta Aita Larzabalekin. ETAKo errefuxiatuek Enbata mugimenduko gazte guztiak bildu zituzten. Guk propaganda egin nahi genuen herriarren artean, kon- zientzia pizteko. Lan geldoa zen, eta ez ohoragarria. Baina egin be- harreko lana zen. ETAK eta haien metodo marxistak gazte haiek lilu- ratzen zituen. Haiek hartu zuten Enbatako zuzendaritza, 1967an. 1968an, Enbata desagertua zen. Pixka bat berpiztu zen, Carrero Blancoren kontrako atentatuaren eta Burgosko auziaren garaian. Baina deus. 1974an debekatua izan zenean, erabat desagertu zen. Enbatako kide ohiek ez zenuen oso harreman ona. Zer harreman zenuen Herri Taldeetakoekin eta IKren ingurukoekin?

Ez dut inoiz harreman zuzenik ukan IK-koekin. Baina beti sentitu naiz haiengandik oso hurbil. Oso pertsona zintzoak ziren, gu baino kimen handiagoarekin borrokatu ziren; beraz, ezin genituen abandonatu. Inoiz ez dut gatazkarik ukan IKrekin eta Herri Taldeekin. Nola bihurtu zinen abertzale? Ezker-eskuin kantaldi grabatzen ari- tzeak lagundu zintuen horretan? Pilotari nintzenez, herri askota- ra joaten nintzen, herriko besteta- ra eta abar. Herrietako jendeare- kin harreman ona nuen. 50eko ha- markada zen. Gauza anitz gaitzen ari zen. Mixel Epherrek erran zi- dan: «Entzuten duzu kantu hori? Belatxa da. Hori kantatzen duena bakarra da. Hilko da. Eta inork ez du gehiago kantatuko». Horrega- tik erabaki nuen kantu horien gra- batzea, ez zitezen gal. Ohartzen ari nintzen dena gaitzen ari zela. Eus- kaltzaileen Biltzarreko kide nin- tzen, baina ez zen gauza handirik egiten. Beraz, pentsatu nuen poli- tikan hasi behar zela. Kantu asko grabatu zenuen. Garai hartako grabazioek oraingoek bai- no balio handiagoa dute? Zuzeneko emanaldiek dugun harremana aldatu da? Erabat. Jean-Mixel Bédaxagarrek erran zidan beharrik grabatu ni- tuela kantuak. «Zuberoan kanta- tzen dugu oraino. Baina ez lehen bezala. Lehengo kalitatea eta metodoa ez ditugu gehiago aurki- tzen gaur egun». Beraz, dokumen- tu horiek berriz kantatzen ikaste- ko balio dezakete. Karrikako giroa aldatu da? Guztiz. Pilotan ari nintzenez, Baionako Pannecau karrika ze- harkatzen nuenean, denek ezagu- tzen ninduten. Denak euskaldu- nak ziren. Askok jarraitzen zuten pilota, baina hedabideetan ez zeu- kan oraingo oihartzunik. Errugbi- rik ere ez zegoen. Herrietako bes- tetako pilota partidak gertakari handiak izaten ziren. Pilotari ho- berenak joaten ziren, eta herrita- rrek ez zuten haiek beste inon ikusteko aukerarik. Orain pilota- riak ikustea ez da gertakari bat. Denetan ikus ditzakegu. Aldaketa horrek pena ematen dizu? Bistan da garai haiek desagertze- ak pena baizik ez diezadakeela eman. Baina bizia aldatzen da. Gaur egun, bizia urtero aldatzen da. So egizu errugbi taldeek zen- bat jende, ostatu eta edari mugia- razten duten. 60ko hamarkadan giroa osoki euskalduna zen. Zure garaian pilota euskaltasuna- rekin lotua zen. Gaur egun, Ipar Euskal Herriko pilotari anitz, eta pilota federazioa oroz gainetik, ez daude batere lido abertzale batean. Ezin zaie denei abertzale izatea es- katu. Pilota federazioa frantsesa da, eta Frantzia osoko taldeak ku- deatzen ditu. Gainera, pilota mota guztiak kudeatzen ditu. Ikaraga- rriko lana da. Egin behar da. Baina hutsa da. Haatik, zinez balio duena trinketeko esku-huskakoa da. Zo- rigaitzez, ezin da filmatua izan. Ez- ker paretako esku-huskakoa

arrakasta handia du, filmatua dela- ko. Trinketa ezin da filmatu, baina Joko Berri bai. Joko Berri trinketa bezalakoa da, baina eskuineko pa- reta horigabe. Horrek Hegoaldeko- ak interesatuko balitu, arrakasta lor lezake. Horri esker, trinketeko esku-huskakoa salba liteke. Eta interesik ez dago? Trinketa edo Joko Berri salba dai- teke, telebista horri interesatzen bazaio. Ez bazaio interesatzen, ez da garatuko. Trinketa kondenatua da, inor ez delako ari. ETBn pasatu behar luke, eta ez da pasatzen. Behin ETBko Kirol Saileko zuzen- daritza ikusten izan ginen. Baina ez zitzairen inporta. Ez genuen deus lortu. Ez dute ezagutzen, eta ez dute bururik hausteko gogorik. Pilotak Euskal Herria bereizten du, batu beharrean? Hegoaldean ezker paretak, Iparraldean trinketa. Muga bat gehiago? Bai, hala da. Zergatik? Mugak era- gin al du? Ez dut uste. Espaldikoa da desberdintasun hori. Ipar Euskal Herriko anitzek pilota jarraitzen dute Euskal Telebistan. Zazpi herrialdeak elkarri josteko bide bat izan daiteke? Ez. Ezker paretako pilota partidak ETBn pasatzea hondamendia da Iparraldeko pilotarentzat eta gaz- teentzat. Iparraldekoek ez dituzte gehiago ezagutzen trinketeko jo- kalariak, telebistak ez baititu era- kusten. ETBko pilota partidek he- mengo jendea anitz interesatzen dute. Herria batzeko modu bat izan daiteke. Nire ustez, hori trinketa- ren kaltetan egiten da. Trinketa guztiz baztertua da. Beraz, telebistak eta nazio batas- nak Iparraldeko berezitasunari kal- te egiten dio? Bestaldi batez gehiago, kalte egi- ten dio eremu honetan ere. Hegoal- dearen hegemonia areagotzen du. Guggenheim eta industria dauzka- te, eta pilota ere bai. Pilota arloan zer bait egin dezakegu. Baina bost axola zaie. Iparraldea maite balute, trinketa maite balute, etorriko lira- teke aztertzea. Ez, ez. Ez dira etor- tzen. Berdin zaie. Maite gaituzte, bai. Baina besterik ez. Gu, aldiz, be- hartuak gara haien maitatzera. Ze- ren eta ez bagenitu maite, ez bai- kinateke existituko. Ematen diegun maitasun handi horren ordainez, zer bait eman diezagukete. Beraz, Zazpiak bat mito bat da He- goaldekoen aldetik? Dudarik gabe. Abertzaleek mobili- zazioak gai bat behar dute, erro- mantikoa... Eta zazpi herrialdeen batasuna da hori. Ongi aztertuz gero, ikusten dugu inoiz ez dela obratuko. Iparraldean, abertzale- ek %10eko indarra dute. Horrega- tik, hemen horren arabera antola- tu behar dugu, ez gaitzen hil. Mi- respenean nago euskal mugimenduak egiten duen guztia- ren aurrean: ikastolak, irratia, kultura elkarteak... Alderdi politi- ko bat ez litzateke deus, horrelako- rik ez balitz. Euskal mugimenduan izugarriko indarra eta dinamika dago. Horrelakorik ez dugu aurki- tzen alderdi politikoetan.

• Motzean

Gaurko pilotari bat
Larretxea. Zezen bat da.

Lehengo pilotari bat
Joset Laduche erranen nizu- ke. Pertsonaia bat zen! Pilo- tan izugarri ona zen. Eta par- tidatik landa, zenbat kantu kantatzen zituen! Kantu anitz ikasi nuen harekin.

Kantari bat
Jean-Mixel Bédaxagar.

Lehengo kantari bat
Barkoxeko Lohidoi, operako kantaria. Indar handiarekin kantatzen zuen.

Kantu bat
Arranoak bortüetan. Ez dute anitzek kantatzen, biziki zai- la baita.

Plaza bat
Plaza txikiak gustatzen zai- kit, esku-huskako pilotaren- tzat eginak zirenak. Senpere- koa edo Urdiñarbekoa aipatu- ko nituzke.

“

Euzkadi Buru Batzarrak ez zuen nahi Iparraldean EAJren adar bat sortzea»

«Ezker paretako pilota partidak ETBn pasatzea hondamendia da trinketarentzat»